

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide, Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “Espainiako gobernuak defizitaren murrizketarako proposatutako neurrien inguruan”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Espainiako gobernuak, defizita murrizteko helburuarekin joan zen maiatzaren 12an aurkeztuta murrizketa sozial handiak proposatu zituen. Kontuan hartuta neurri horiek estatu espainiarrean inoiz planteatu diren atzerapausorik handienak izan direla alor sozialean, eta horietako batzuk zuzenean eragingo digutela, ezinbestekoa deritzogu Eusko Legebiltzarrak bere kontrako jarrera finkatzea lehenbailehen.

Hori dela eta, honako legez besteko proposamena egiten dugu, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak ez du bat egiten maiatzaren 12an Espainiako gobernuburuak aurkeztutako defizitaren murrizketa azkartzeko neurrien planarekin eta jasotzen dituen murrizketa sozialekin, eta, ondorioz, bertan behera utz dezala eskatzen dio.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez ditzala aplikatu aipatutako murrizketa sozialak, ez beste inolako murrizketa sozialik, defizitari aurre egiteko. Halaber, azpimarratu nahi du krisi egoeretan politika sozialaren aldeko apustua mantentzea ezinbestekoa dela krisiaren zama guztia gizarteko sektorerik ahulenak jasan ez dezan.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekimena har dezala, Foru Aldundiekin koordinatuta, zerga politika birbanatzaileago eta bidezkoago batera eramango gaituen aldaketak proposatzeko.

URGENTIAZKO ARRAZOITZEA

Espainiako gobernuak diputatuen kongresuan aurkeztutako murrizketa neurriak direla eta, Eusko Jaurlaritzak iragarri du Foru Aldundi eta EUDELein bilera egingo duela murrizketa hauek gure erkidegoan nola gauzatu adosten saiatzeko. Hori dela eta, bilera horren aurretik, Eusko Legebiltzarrak bere jarrera finka dezan, ekimen hau urgentziaz tramitatzea eskatzen du.

Gasteizen, 2010eko maiatzaren 13an

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea**